



ITTEN BAT

(*) Itten: arrastua, pista

Hausnarrian

'Euskaldunak dirua egitten dau, baiña ez euskerarik!'

Bittoriano Gandiaga



Ez kikildu, ez lotsatu

Zarrau atia!

Gure ahoskeran 'itxi atia' eta 'itxi liburua mahai gaiñian' bardiñak dira, fonema bixak neutralizatuta dagoz-eta. Testuinguruak argiketan dosku lehenengo 'itxi' cerrar dala eta bigarrena, berriz, *dejar*. Nahasketak ebitaitteko, hizkuntziaren funtziño nagusixa komunikaittia dan ezkerro, hemengo jentia 'cerrar' esanguriarendako 'zarrau' aditza hartu eben, erderazko berbia hemengua bihurtuaz.

Horra hor praktikotasuna zela nagusittu xakon purismuari! Horregatik, aditz horreik idazterakuan bereizi egingo dittugu 'itxi atia' 'tx' grafemaz idatzixaz eta 'itzi egidak bost euro' 'tz'-az.

Hala ta be, 'itxi' aditza beste kasu eta modu askotan be ebalten dogu: *tabernia itxitta dago; ulixaren hizkeria itxixa da; itxituria jasotera fan dira*.

Orduan, badakitxue, iñork esaten badotsue "zarrau atia" euskera zelebria dala, **emun azalpena eta ez kikildu eta ez lotsatu zeure euskeriarekin**.

Billatu berba honein sinonimuak

- | | |
|---------------------------|------------------|
| 1. Arrosinka | A. Nagiak bota |
| 2. Botaguria | B. Aurpegia |
| 3. Txintxiña edo ittojiña | C. Aharrausika |
| 4. Nagixak etara | D. Negar malkoak |
| 5. Mosua | E. Goragalea |
| 6. Negarmarkuak | F. Itokina |

Zein auzotan dagoz -be/pe atzizkiagaz osotutako baserri honek?

- | | |
|-----------------------------------|-----------------|
| 1. Aizkorbe Azpikua eta Goittikua | a. Arantzazun |
| 2. Aittape | b. Araotzen |
| 3. Sustiabe | c. Araotzen |
| 4. Aldabe | d. Olabarrietan |
| 5. Jaturabe | e. Olabarrietan |
| 6. Añube | f. Olabarrietan |
| 7. Zapiarbe (Unaiñena) | g. Larrañan |

EUSKERAZ EGOGI

Jo dost*

Indikatiboko *nor-nork* eran konjugaitten diran aditz gehixenak *nor-nori-nork* eran konjugaitten dittugu, esaterako: *ikusi dotsut**, *eruan dotsut**, *egurtu dotsut**, *maite dotsut**. Orainguan dakarguna era honetako akats tipikua da. Fijau gaittezen zela esan biharko litzakien:

Aitta semiak sukaldian barriketan:

- Aitta, maisuak jo egin dost*.
- **Jo egingo zauen?**
- Bueno, bai **jo egin nau**.
- Eta zela **jo zau**, ba? Nik entzunda dakot gaur egunian ja **eztaueilla joten**.
- Bueno, jo, jo...**enu jo**.
Besua altxau dau eta belarrondokua emun bihar nostanian makurtu egin naiz eta bere hanka artetik alde egin dot.
- Ederretik librau haiz, orduan!
- Bueno, bazkalostian diar egingo xat eta berba-ordua eskatuko xat barkamena eskaketako.

Ikusi dagigun Candido Izaguirreren hiztegixak be, 195. or. dakarren ejenplua: *Ostikuaz jo naxok = Ostikuagaz jo naixok (nau, hitanuan) = Me ha dado una patada.*

ERANTZUNAK
-Billatu berba honein sinonimuak
1c, 2e, 3f, 4a, 5b, 6d
-Zein auzotan dagoz -be/pe
atzizkiagaz osotutako baserri
honek?
1b, 2d, 3f, 4e, 5c, 6g, 7a



ITTEN BAT

(*) Itten: arrastua, pistia

Ateraldixa

'Hiru Iruatzak eta hiru Garagaltzaak baiño gurago, hiru Gesaltzaak'

Graziano Anduaga, Gesaltzako aittona
Oharra: Iruatz = Idigoras, forma idatzixan



Hiru Iruatzak



Hiru Garagaltzaak



Hiru Gesaltzaak

Lurraren izenak

Gu aillegaitterako mundua bada izen bitxiz betia: Olaa, Triana, Mojasoro, Udana.

Lurraren izenak zubixak dira, denporiaren uberak. Zañartu, Ubao, Olapoto, Berezaio.

Ezkara lehenenguan hemen honeittan berbetan ibillixak. Osinurdin, Garai, Auntzerreka, Garibai

Gizaki musika hartu dau lurrak, lurrotsa gizakixak. Murguzur, Koroso, Jaumendi, Torreazo.

Lurrari loturik leku-izenak, gu bagoiaz igaroz. Duru, Mirubizkar, Zubillaga, Goribar.

Denbora bere lekura, Gerardo Markuleta (Erein, 2016) (moldauta)
Poema horrekin abesti bat egin zan: Jabier Muguruza (eta Pablo Guerrero), *Tonetti Anaiak* (Resistencia, 2015) Hemen entzun leike: <https://play.spotify.com/artist/0sFuliOYc4LmIU6CswvY3c>

Fan aditza

Aditz forma hau, hain geuria eta hain bakana dala uste doguna, hemetik kanpora be ebalten da, eta geure herriko muga inguruan ez eze, urriñago be entzuten da, adibidez: Leintz aldian, Aretxabaletan eta Eskoriatzan normala da **fan** entzutia, Aramaixon **fuen**, Sakanan (Etxarri Aranatz, Lakuntza...) be **fan** entzungo dozue Zangotzako merindadeko Erroibarren eta Artzibarren moduan; Pirinioetako baillaretan: Aezkoan (**fein**), Zaraitzun eta Erronkarin be agiri da, eta Hondarrribian joan esan biharrian: **Fa, faz, faki, fakiyaz, fango, faze** esaten daue. Eta **Juane** pertsona-izenaren ordez, **Fane** be ohikua izan da gure artian.

Beraz, ebaliz degigun **fan** hau bilddur barik, kanpua be entendiuko doskue-eta!

Eta hori ebalterakuan, jakina, ez kikilddu eta ez lotsatu zeure euskeriarekin.

Zein auzotan dagoz *ola-* aurrizkixagaz osotutako baserri eta leku-izen honeik?

- | | |
|----------------------------|------------------------|
| 1. Olaitturri ¹ | A. Zubillagan |
| 2. Olabbarri | B. Urrusulan |
| 3. Olaburu | C. Zubillagan |
| 4. Olalde | D. Larrañan |
| 5. Olajaungoa ² | E. Unibersidade ostian |
| 6. Olate | F. Otadiu zuhaitzitan |
| 7. Olapoto | G. Olabarrietan |
| 8. Olakua | H. Olabarrietan |
| 9. Olaran | I. Larraña behian |
| 10. Olaetxebarri | J. Murgixa barrenian |

Oharrak: (1) *Oraitturri* izan bihar da jatorrizko izena. (2) *Meltxorrena* gaurko egunian

Billatu berba honein sinonimuak

- | | |
|------------------|--------------|
| 1. Esplikau | A. Bukatu |
| 2. Berba egin | B. Nahi izan |
| 3. Ixiotu | C. Etorri! |
| 4. Amaittu | D. Hitz egin |
| 5. Itxungi | E. Piztu |
| 6. Gura izan | F. Eseri |
| 7. Erdú! | G. Erori |
| 8. Jasarri | H. Kasu egin |
| 9. Jausi | I. Azaldu |
| 10. Jaramon egin | J. Itzali |



ITTEN BAT

(*) Itten: arrastua, pistia

Txiste kontari

Egun batian alkartu zittuan Oñatin Arantzazuko fraidetan ibillittako herri desbardiñetako ikasle batzuk, bazkari baten lagun zaharrak ikusi, eta lehenagoko kontuak barriztaitteko asmuagaz. Bazkaittera fan aurretik txikito batzuk hartzera fan zittuan usadixuari jarraituaz, eta txikiteuan ebiltzela oñatiar batek hauxe bota xuan kuadrillako baten gaiñian:



- Honek eraten xok ardaua ura legetxe!
- Beste danak jo eta ma geratu zittuan alkarrerri begira:
- Zer edaten ote dik honek: ardoa, ura ala esnea?

Billatu berba honein sinonimuak

- | | |
|------------------------------|---------------------------------------|
| 1. Erromako zubixa, ostarkua | A. Txingor xehea |
| 2. Edur matazaak | B. Eulandarra |
| 3. Erlaiñua | C. Ostadarra |
| 4. Antzigarra | D. Elur-jausia |
| 5. (Izotz)-garrangaak | E. Elur malutak |
| 6. Lanbrua | F. Zurda, izotz beltza |
| 7. Litza | G. (Izotz)-burruntziak, karronkadelak |
| 8. Kixkoria | H. Behe-lainoa, erreka-lainoa |
| 9. Edurramila | I. Langarra, zirimiria |
| 10. Eulantza | J. Gandua, lausoa |

Erantzunak: 1c, 2e, 3h, 4f, 5g, 6j, 7j, 8a, 9d, 10b

Euskeraz egogi

GURA IZAN

Aditz hau 'nahi izan' zentzuaz gain, 'maite izan' zentzuan be ebalten dogu eta horixe ekarri gura dogu orainguan ale honetara. Hona hemen aditz tablia hirugarren pertsonari begira:

GURA IZAN aditza (Indikatibua ZER-ZEIÑERI-ZEIÑEK)

ORAIÑALDIXA

	Neutra	Alokutibuak (hitana)	
Nik	amari asko	gura XAT	<i>gura TXAT</i> <i>gura TXANAT</i>
Hik	amari asko	gura XAK / XAN	_____
Harek	amari asko	gura XAU	<i>gura TXAK</i> <i>gura TXAN</i>
Guk	amari asko	gura XAUGU	<i>gura TXAU (gu)</i> <i>gura TXANA(g)U</i>
Zuk	amari asko	gura XATZU	_____
Zuek	amari asko	gura XATZUE	_____
Hareik	amari asko	gura XAUE	<i>gura TXAI</i> <i>gura TXANAI</i>

Ikusi nagusi eta ume baten arteko alkarrizketa hau:

- Zenbat gura xatzu, ba, zure arreba txikiñari?
- Askoi!
- Eta aittaxori eta amatxori be asko gura dostezu?
- Bai, hareiri be asko gura dostet
- Eta aittajauna-amandriai be asko gurako dostezu, ezta?
- Ba, bai, zulakuairi baiño gehixago!

EZ KIKILDDU,
EZ LOTSATU

Atxillo!

Araozgo umiak **atxilloka** jolasten euen gerra ostera arte hango elizpeian, eta jolas horretan ume bat harrapoten euenian **atxillo!** esaten euen. Hortik datoz **atxilo hartu** eta **atxilotu** berbak euskera batuak geruago maillegu hartu dittuenak. Gaur egunian, oso zabalduta dagoz eta komunikabidietan eta abarretan txitean-pitean entzuten dogu: *ulixa atxilotu daueilla, sandixa atxilo hartu eueilla* edota *bendixa atxilo eruango daueilla*.

Hori ei da geure euskera moldiak euskera batuari emundako lehenengo berbia.

Hortaz, berba hori ebalteruzkuan jakin egizu bertakua dala, eta zeure etxeko berbetia ebalten dozunian ez kikilddu eta ez lotsatu.

Gertaeria

ASKAZUBIKO MUTILLARENA



Gaurko istorio hau orain dala ehun eta zazpi urte pasau zan, 1910eko apirillaren 1ian, hain justu be. Sasue hartako neguak orainguen aldian luziaguak eta latzaguak izaten ziran hamen, duda barik. Esan biharrik eztago, orduko edurtiak ez eukailla zerikusirik gaur egunekuakin. Aloña alde hori danori be, esaterako, zuri egoten zan hiru-lau bat hillabetian eta kaleraño be sarrittan zuriketan eben, gaztien pozgarri eta zaharren amorragarri.

Ba, halaxe, urte hartako udabarriko -baiña eguraldiz artian neguko-astegun buruzuri batian Julian Lizaur Askazubiko semia Zumarraga aldera abixau zan Eltzikortako semiarekin

batera, billotsak saltzera hango karnazerixa batera. Kaleko lanak egin zittuainian, etxerako bidia hartu euen barriz be, baiña Eltzikortakuak Antzuolatik etortia pentsau eben, eta Julianek, barriz, fandako bidetik, hau da, Lakiolatik gora Arrolamendira, handik behera Lizargaratera, gero Marizelaietara (Maixeletara), eta, azkenik, Askazubira.

Egun hartan, esaten daueiñez, edur larregi be ez eguen, hiru-lau bat zentimetroko edur-azaltxo bat, besterik ez; haiziak, baiña, gogor joten ei eben, edur-bisutza jasuz. Jualianek Zumarragatik etxera etorteko bi gauza ekuan kontra: aldapa latza, batetik, eta edur-bisutza, bestetik, eta hirugarren bat be bai, egoera horreittan askoz hobia ezdana: lagun egitteko inor be ez. Haizia zala-eta, astuak lagundu biharrian, atzera eragitten ei otsan eta mutilla bere pausua ondo emun eziñian etorren, esandako moduan haizia eta astua bixak kontra zittuela. Une baten, hemezorti urteko mutil gaztia, sasuekua eta mendixan zailddutakua, meko egitten hasi zan. Edur-bisutzak ziharo itsutu eben, ez ekixen oso garbi nun eguen, unetik unera hotziketan eta makalketan xoiala igarten otsan, eta larriketan, jakiña! Eta unetxo baten belaunikatu bihar izan zan arnasia hartuko baeben. Astua, ikararik egin barik, haren onduan geratu zan.

Edurretan holaxe galdu zan Askazubiko mutilla. Hurrengo egunian, etxeuak mutilla agiri etzala ikusi euenian, haren billa mobiu ziran eta hantxe topau euen Lakiolako alkartia baiño goratxuago, Legazpiko partian, bide kontran hildda, astua onduan ebela.

Orainddiok be hantxe dago Julianen izenian jarritako hillarria. Hauxe dixo:

1910 'Ko APIRILLAREN (*fetxia ezabauta*) ILTZAN EMEN ELUR TARTIAN LIZAU' TAR JULIAN 18 URTE ETA 8 ILLABETEKOA !GOIAN BEGO;

Gorantziak eta eskerrak Askazubiko Bixenta Aiastui barriemaillari.

Billatu berba honein sinonimuak

- | | |
|-----------------------|---------------------------------|
| 1. Edur-gixiak | A. Trumoia |
| 2. Horiaatu | B. Tximista |
| 3. Edur-bisutza | C. Elur-gilbak |
| 4. Eramaittua | D. Trumoiak jo |
| 5. Euri-toketadia | E. Lainotu |
| 6. Haize-zurrunbillua | F. Goian-behean bota |
| 7. Horeixak jo | G. Euri zaparrada handia |
| 8. Idolaz bota | H. Haiziak jasotzen duen elurra |
| 9. Justuixa | I. Erauntsia |
| 10. Oiñaztua | J. Zirimola |

EUSKERAZ EGOGI

(*) Futbolera jokatuko dogu

Zertan jokatu esaten da eta ez zertara **jokatu**. Baiña goguan izan jokatu aditzaren ordez **egin, ibilli, jardun** ... aditzak be bardin-bardin eballi leikiela

- **Futbolian** jokatuko dogu
- **Pelotan** egingo dogu?
- **Musian** dabiltz / **Musian** dihardue

• Zeiñek egin gura dau **partxisian**?

- **Txorro-morron** ibilliko gara? (*Txorro-morro-piku-taio-ken*)

Jokuari izena ekintza errepikakorren batek emuten xaonian **-ka** atzizkixa eballi izan da:

- **Ikusi-makusika** ibilli
- **Pote-poteka** ibilli
- **Gorde-gordeka** ibilli



ITTEN BAT

(*) Itten: arrastua, pista

Txiste kontari

Pistolia eroatera

Egun baten bazixoian errekadutara gure herrira bizi izatera etorri barri zan emakume bat. Bidian topo egin eben herriko beste emakume batekin, eta preguntau otsan:



- Nora zoaz, Juanita?
- Illaramendiñeraiño pistola bat eroatera.
- Ez da izango! Ene, ene, handiagoak entzun behar genituen!

Hori entzundakuan hor xoiak gure emakumia buruari helduta, marmaxika. Goratxuago, beste emakume batekin alkartu zan eta, esan otsan:

- Juanitarekin elkartu naiz eta pistola bat eroatera omen zihoan, dardarka utzi nau.
- Ene, ene ez hadi horregatik larrittu, emakumia, pistolia berakatz-zopak egitteko ogixa don eta!
- Ene ba, zopakoa orduan!

Billatu berba honein sinonimuak

- | | |
|-----------------------|------------------------------|
| 1. Latrontxia | A. Laiotza |
| 2. Ostondua | B. Ihintza |
| 3. Sargori | C. Argiunea, hodeiartea |
| 4. Illuntza (iruntza) | D. Egutera |
| 5. Galdia | E. Hodeiak jo aurrekoa |
| 6. Bero ustela | F. Putzuetako izotz-kristala |
| 7. Ostargixa | G. Sapa |
| 8. Añubia | H. Garra, lama, sua |
| 9. Ibargixa | I. Zeru-sabaia |
| 10. Ostartia | J. Goiztiria, egunsentia |

Euskeraz egogi

* Goazen Erreal

Reala animaitteko asmuagaz sortutako esaldi hau ezta zuzena; izan be, 'goazen' fan aditzaren agintterazko formia da, norabait fateko aginddua emun gura dogunian ebalu biharrekua, eta ez desio edo gogo bat agertu, edo animua emuteruzkuan ebaltekua.

Animau gura izan ezker, beste esaldi honeik ebalu biharko gittuke, kontuan izanda Reala beti dala gure erreferentia:

- Aurrera, mutillak! Aupa, neskak! Segi hola!
- Ez etsi, eutsi! Ekin! Emun egurra!
- Geure eskuetan xagok eta, eutsi horri!
- Geuria don eta, eutsi goiari!

- Gaurkuan bai, gaurkuan geu txapeldun!
- Hirekin gagozak, geure-geuria haiz eta!
- Etxagon zuelakorik. Gora txuri-urdiñak! Biba zuek!

Eta Reala ikustera fan bihar badogu, berriz, holakuak:

- Guazen Reala animaittera, gaurkuan danon premiñian egongo da eta!
- (Donostiara aillegautakuan) Guazen Alde Zaharrera, Realzale danak han ibilliko dittuk eta!

Eta partidua galdu baldin badau, berriz:

- Guazan etxera, hemen etxagon zer egiñik eta!

EZ KIKILDDU,
EZ LOTSATU

Okelia baiño, pe kia gurago!

Eta zuek? Ño! Txuleta on bat daguen lekuan, **okelia** gurago! Ba, **okelia** dakozue: **txarradia** piparrakin, **okela** egosixa tomatiarekin, txuleta be bai, saiheskixak eta bertako billotsa. Eta **peskia** dakozue: legatza prejiuta eta saltsan, bakaillaua Bizkaiko erara, txitxarrua eta antxoak. Eta ze **peska** da, ba, Zuazola aldi harrapotakua? Ez, gizona, Pasaiako portutik gaur goizian ekarrittakua! Esan bihar neben, ba, Albarritzagako presan ebiltzen **peskaarixena** ezin zala izan! **Peskatorena** izango zala pentsau dot nere artian, haren **peskiak** Getarixakuren inbidixarik eztau izaten eta. Bai, etxatzu arrazoa falta, **peskia** jateko freskua izan bihar, edo bestela zale gogorra izan bihar! Hemengo erreketan oraingudiok badago **peska** pittin bat, baiña oraingudiok onena **peskaderixan** erosittakua.

Eta haragixa noiz? Boo, haragixa ikutu be ez! Hori beste egun baterako itziko dogu!

Bertsopapela

ZAHARTZAROKO AJIAK

Gizon nekazarixa
laister ohi da zahartu,
tankera itsusixa
gorputzak hartu,
besuak bihurritu,
belaunak okertu,
sudurra dindirritu,
pausua baldartu,
bizkarra gaillurtu,
burua makurtu,
mosua kuskurtu,
bistia laburtu,
belarrixak gortu,
agua bihurtu,
zentzuna agortu,
adimena lotu,
kaskarra lelotu,



okotza kakotu,
samia igartu,
azala ximurtu,
koipakixak urtu,
hazurrak agertu,
hotzakin bilddurtu,
eskuak gogortu,
beruak izardittu
biguna elkortu,
gogorra nanotu,
haizia samurtu,
ohitturaz zabartu,
laguntza bihartu,
bizitten aspertu:
goittik deittutakuan
fateko gertu.

Graziano Anduaga 'Gesaltzako aittona'

Oharra: Bertso hontaz gehixago jakittekko, jo Bittor Madinak egin eben kolaboraziñora.
Kontzejupetik 158. zenb. (5. or.), 2007-01ekua.

Zein auzotan dagoz *-ola* atzizkixagaz osotutako baserri eta leku-izen honeik?

- | | |
|-----------------------|----------------------------------|
| 1. Madalena-Korostola | A. Urrexolan |
| 2. Auntzola | B. Arantzazun |
| 3. Baltzola | C. Olabarrietan, Legazpiko mugan |
| 4. Arrola | D. Olabarrietan |
| 5. Imittola | E. Murgixan |
| 6. Aldaola | F. Arantzazun |
| 7. Okola | G. Olabarrietan |
| 8. Bildotsola | H. Olabarrietan |
| 9. Arrazola | I. Arantzazun |
| 10. Arratola | J. Arantzazun |

Billatu aditz honein sinonimuak

- | | |
|----------------------|---------------------------------------|
| 1. Apartau | A. Artatu, kasu egin. |
| 2. Atendiu | B. 1. Aukeratu 2. Banandu |
| 3. Labandu | C. Sendatu |
| 4. Geratu | D. Lortu, eskuratu |
| 5. Oratu / Obatu | E. 1. Gogoratu 2. Konturatu |
| 6. Osatu | F. Gelditu |
| 7. Akordau | G. Irristatu |
| 8. Zuzendu | H. Heldu |
| 9. Osotu | I. Txiribuelta egin, itzulipurdi egin |
| 10. Atxilipurdi egin | J. Falta zaiona jarri, burutu |

EUSKERAZ EGOGI

Zenbat da? *Lau hogeita bost

Numeruak esaterunzkuan, numero osua eta dezimalaren artian "eta" konjuziñua sartu bihar da derrigorrez. Orduan 4,25 numerua, 'lau **eta** hogeita bost' eskribiuko dugu, nahiz eta [lau ta hogetabost] esango dogun. Bardin-bardin numero guztiakin. Adibidez:

8,40 = zortzi **eta** berrogei.
16,39 = hamasei **eta** hogeita hemeretzi.
27,23 = hogeita zazpi **eta** hogeita hiru.
56,84 = berrogeita hamasei **eta** laurogeita lau.

-Zein auzotan dagoz *-ola* atzizkixagaz osotutako baserri eta leku-izen honeik?
1e, 2d, 3a, 4f, 5g, 6b, 7j, 8i, 9h, 10c
1b, 2a, 3g, 4f, 5h, 6c, 7e, 8d, 9j, 10i

ERANTZUNAK



ITTEN BAT

(*) Itten: arrastua, pistia

Kontu kontari

AMAKASIA ETA ABADIA

Neguko goiz hotza izan bihar zan, jaikitteko baiño mantapeian egoiteko giro hobia egitten eben egun horreittako bat, itxuria danez, eta, hala, prisa barik, abadia eta amakasia etxian egozen, bata uhe epe-lan eta bestia sukaldian lanian. Halako baten abadia iratzarri eta, jaiki guran-edo, nagixak etaraten hasi zan eta, sukaldian eguen amakasiari halako diar bat bota otsan ohian eguen lekutik:

-Zer eguraldi egitten dau?

Eta harek hala erantzun:

-Erdi oskarbi, erdi horiaatu,
berorrek sinisketan ezpadau,
jagi eta begirau!



Horiaatu = hodeitu; Jagi [jai] = jaiki

Ez kikilddu, ez lotsatu

OKELIA ETA HARAGIXA

Gure herrixan bi berba honeik ondo desbardinketan dittugunez, aurrerantzian be jarraitu degigun halaxe. **Okelia** ebalixagua da jaten doguna izentaitteko. **Haragixa**, berriz, korputzekuari esaten xaugu, pertsoniarena danian, behintzat. Ikusi degigun bata eta bestiaren adibidiak:

• **Okela-dendia, okela-gizena, okela-gixarra, okela erria, okela egosixa, okela-jana:** egin dogun okela-janagaz lepo geratu gaittuk. **Okela-saldia. Okelata(ra)ko:** Ganaduen gaiñian berbetan, okelia eskuraketako hazten dana. *Larogei erralde izango dau honezkero, eta irisko hau okelata(ra)ko kendu bihar dogu.*

• **Haragi faltsuak, haragi-etena, haragi bizixan:** haragixa estalitten dauen azala galdu ezker bistaraketan dana. *Haragi bizixan dakot orpu ospelakin. Mingaiña haragi bizixan geratu xakon salda irakiña eran ondoren. Aratustiak, aratosteak edo aratiztixak iñauterixak izentaitteko.*

Billatu aditz honein sinonimuak

- | | |
|--------------------------|----------------------|
| 1. Atximur egin | A. Ohartu, konturatu |
| 2. Ibilli | B. Topo egin |
| 3. Botaguria izan | C. Hoztu |
| 4. Sendaatu | D. Kimatu |
| 5. Igarri | E. Imurtxi egin |
| 6. Hozkirrittu, hotzittu | F. Hitzartu |
| 7. Trikitx egin | G. Garbitu |
| 8. Iñausi | H. Goragalea izan |
| 9. Berbaatu | I. Loditu, sendotu |
| 10. Soilddu | J. Ari izan |

EUSKERAZ EGOGI

*Alavesek hiru bat galdu dau

Kirol emaitzak adierazterunzkuan, adierazo gura dogun kantidade bixen artian "**eta**" konjuziñua sartu bihar da derrigorrez. Orduan, "hiru bat" esan biharrian ' hiru **eta** bat" esan eta eskribiuko dugu. Bardin-bardin edozein kiroltako emaitzaakin. Adibidez:

- 88 **eta** 90 galdu eben Baskoniak CSKAren aurrian.

- 22 **eta** 18 irabazi otsan Bengoetxeak Irribarriari finalian.

- Bartzelonak 3 **eta** 1 irabazi xau Alaveseri.

- Bera Berak 28 **eta** 26 galdu dau Ro-Casaren kontra.

-Billatu aditz honein sinonimuak?
1e, 2j, 3h, 4f, 5a, 6c, 7b, 8d, 9f, 10g

ERANTZUNAK



ITTEN BAT

(*) Itten: arrastua, pista

Kontu kontari

UGASTEGIKO ZURITZAILLIA

Ugastegiko zuritzaillia egun batian abadexera fan zan hango sukaldia eta komuna zuriketara. Horretan jardun eben egun danian eta gaba egin zanian lanok orainddiok akabo barik egoenez, bertan lolekua eskatu eben. Amakasiak erantzun otsan abadexian bi kuarto besterik ez egozela, eta bere etxera fateko.

Zuritzailliak abadexekuen borondate eskasa ikusitta, hasarratu egin zan, eta, gogoz kontra bazan be, Ugastegi aldera abixau zan, *-fan hadi Ugastegiraiño bixar goizian berriz etorteko!*- esanaz bere artian. Alde egin aurretik, baiña, sutako hauspuia amakasiaren ohian sartzea akordau xakon.

Hurrengo goizian berriz be agertu zanian lanok egittera, amakasiak haserre eraso otsan:

- *Atzo etxe guztian ibilli ziñan eta enredau nostazun gauza guztiak, hausporik be eztot topaitten sua ixuketako!*




Eta igeltseruak erantzun:

- *Ez zure ohian lo egin bazeu!*

Zuritzaillia: igeltserua

Asmau

Berba honeittako zein ezta *sakapon* edo *sapakon* berbiaren sinonimua?



Billatu aditz honein sinonimuak

- | | |
|-------------------------------|--------------------------------|
| 1. Iratzarri | A. Mugitu |
| 2. Esegi | B. Jo, bizkarra berotu |
| 3. Ingiratu | C. Galdetu |
| 4. Ikara egin | D. Burua arindu |
| 5. Jare (ameti) | E. Eseki, zintzilikatu |
| 6. Burua kaskaldu edo enredau | F. Moldatu, konpondu, prestatu |
| 7. Ittendu | G. Esnatu, itzarri |
| 8. Konfundiu | H. Ukatu |
| 9. Egurtu | I. Utzi, onartu |
| 10. Ezeztatu | J. Erratu, okertu |

EUSKERAZ

EGOGI

Zela geratu dira?

Bi eta bi

Kirol emaitzetako bardinketak adierazterunzkuan ezin da esan izenburuko esaldixa gaizki daguenik, baiña bai goguan hartu biharko geke hori esateko **-na** atzizki banatzaillia dakogula eta bera ebaltia egogixagua litzakiela. Orduan:

- *Biña geratu dira*
- *Hamabiña oiazienian Irujok min hartu eben.*
- *Zela doiaz? Husna orainddiok!*
- *Kaikuk eta Orixok hiruna bandera irabazi dittue aurtengo denboraldixan.*
- *Zela doia partidua? Hogeita zazpiña doiaz eta bigarren zatixa jokaketako.*

Dana dala, zentzu berian 'parra' berbiarekin sortutako hainbat lokuziño be ebalten dittugu, bestiak beste, parra egin, parra geratu, parra fan, parra egon.

- *Parra geratu dira.*
 - *Parra egin daue.*
 - *Zein doia irabazten? Parra doiaz.*
 - *Zer egin xok Aloñak?*
- Kanpua irabazi eta etxian galdu. Parra egin xok orduan.*

D=Parapurdin=Hegaztixen errota edo parapua (buche).

ERANTZUNAK

1g, 2e, 3f, 4a, 5l, 6d, 7c, 8j, 9b, 10h.



ITTEN BAT

(*) Itten: arrastua, pista

Ipuña

ARAOZGO KANTARIXA

Auzo horretan bazan gizon bat betik kantuan ibiltten zana. Behin kobazulo batian eguela, betiko moduan zerbait kantaitten hasi zan, eta norbaittek kantuan erantzun otsala konturatu zanian:

—*Hau dot poza!*—zixuan-. Erregeregana noia.

Bidian zixoiala oixal-saltzaille bat topau eben. Harek, erregeregana zixoiala entzun ebenian:

—*Gaizki jantzitta zoiatz*—esan otsan—. Han irabaziko dozun erdixa neretako bada, neuk soñeko barri ederrez jantziko zaut.

Araozgo kantariak, erregeren aurrera aillegauta, ekixen guztia kantau otsan. Erregek orduan, gaizki iritzitta, saritzat berrehun makillakada emuteko agindu eben:

—*Berrehun? Orduan ehun oixaldunarendako!*—pentsau eben bere artian Araozgo kantariak.

ETXANIZ ERLE, Xabier. *Geure ipuinak*. Moldauta.

Ez kikilddu, ez lotsatu

Urrinen betiko parejia

Urrinek badako lagun bat desagerketako zorixan daguea. Atzo goizera arte danon agotan entzuten zana gaur egunian, berriz, baztertuta edo bere senide ospetsu batzuk *-hurbil* eta *gertu*- ordezkatuta ikusten dogu, puntura arte gehixen ebaliz izan dana ixixa ahaztuta.

Hala ta be, ezta urrin fan bihar **'hurrian'** entzuteko, belarrixa ifiñi eta edozeiñeri entzun-go xatzue oraindiok, **hurriko berbia da, hurretik zaindu biharrekua, lagun hurra.**

Horra hor, bada, *Urrinen* betiko parejia berreskuraketako deiza.

Urrin= urrut; Hurrian= hurbil, gertu.

Billatu aditz honein sinonimuak

- | | |
|-----------------|-------------------------------|
| 1. Ordeittu | A. Aipatu |
| 2. Mareau | B. Goraipatu, goratu, ohoretu |
| 3. Konfirmatu | C. Menderatu |
| 4. Mentau | D. Herdoildu |
| 5. Abonau | E. Zimaurtu, sastu |
| 6. Blastiu | F. Deitu |
| 7. Sistu | G. Berretsi |
| 8. Diar egin | H. Zorabiatu |
| 9. Mendan hartu | I. Ziria sartu, engainatu |
| 10. Sakatu | J. Jo, astindu |

EUSKERAZ
EGOGI

*Txandia dako zu
maiatzak 8, 9, 10.

Makina elektronikuak askotan digituak baiño ez-tittue emuten informaziño moduan. Hortaz, kontuz ibilli bihar dogu holakuak esaterunzkuan, gauza bat dalako makiñak erakusten doskuna eta beste bat hori zela esan bihar dan.

Adibidez, jo degigun anbulatorixoko makiñiak datu hau emuten xaela bulegarixari: **2017-05-08, 9:10.** Honek ezin dau esan txandia dako zu maiatzak zortzi, bederatzi, hamar, beste honela baiño: **Txandia dako zu maiatzaren zortzixan, goizeko bederatzixak eta hamarrian.**

Bardin-bardin beste edozein ordu agertu ezkeru. Adibidez:

2017-10-14, 11:15:
urriaren 14an, goizeko hamaikak eta laurdenetan.

2017-12-18, 13:45:
abenduarien 18an, eguerdiko ordu bixak laurden gutxiagotan.

1d, 2h, 3g, 4a, 5b, 6j, 7e, 8f, 9c, 10i
-Billatu aditz honein sinonimuak

ERANTZUNAK



ITTEN BAT

(*) Itten: arrastua, pista

Kontu kontari

IMITTOLAKO INTXAURRA

Gaurko kontua Olabarrietan pasau ei zan. Betiko moduan, Aste Santu aurtxuan etorri zan abadia misiñuak emutera, hau da, Aste Santua gertaketako garizuman egitten ziran aste-bete inguruko gogo-jardunak emutera, eta hasi zan altaratik:

Auzotar maittiok, ermita eder honetan alkartu gara gaiñian dogun Aste Santua bihar dan moduan gertaketako. Garizuman gagoz, gure gorpu-tzak eta animak garbiketako garaixa; horregatik, bada, lehenengo eta behin aitortu degigun gure pekatuak. Isilunia egin eta gero... San Jose be hor dogu altaraan guri begira, guri lagunketako gertu, eskatu degixogun berari laguntasuna.

Eta hori esan orduko behian eguen auzotar bat altxau zan eta holaxe bota otsan:
Jauna, zenbat bider esan bihar dogu hori eztala San Jose, hori Imittolako intxaurra dala!
Abadiak hori entzun ebenian luze jausi etzanean!



Imitola 1989 (desagertuta) - Olabarrieta Auzoa (Argazkia José Urcelay)

Ez kikilddu, ez lotsatu

Gura dok/n [gurok/n]. Bihar dok/n [bihok/n]; []=esateko eria

Hona hemen lagun pare bapua, agoz orain arte behintzat, eten barik ebali direnak edozein gurari edo desio adierazoteko: *Umiari esaten xako zer gura dauen meriendaitteko, aittari edo aittajunari zer bihar dauen afaritteko eta amari zer gurako leukien bere egunerako. Dendan preguntauko doskue zer bihar dogun, eta bankuan zer gura dogun.* Hortaz, **gura izan** edo **bihar izan** aditzak izan dira orain arte gure artian ezagutu diran bakarrak gurarixa adierazoteko.

Nahi izan geruago aillegau xaku, eskola, komunikabide eta literaturaren bittartez, eta horrein indarrez idatziz guztiz nagusitu da eta agoz be lehen baiño gehixago entzun eta ebalten da.

Azkenenengo aillegau dan horri ezer kendu barik, gorde degigun hemengo **gura izan** eta **bihar izan** aditzak edozein gurari adierazo bihar dogunian ebalteko.

Billatu aditz honein sinonimuak

- | | |
|---------------------|-----------------------|
| 1. Menustu | A. Bigundu (uretan) |
| 2. Garbatu | B. Erdi mozkortu |
| 3. Birindu | C. Iragazi |
| 4. Beratu | D. Eskastu |
| 5. Berdoztu | E. Irentsi |
| 6. Bereandu | F. Damutu |
| 7. Kankinddu | G. Urtu |
| 8. Errendiu | H. Beroak jota geratu |
| 9. Irauntsi | I. Nekeak jota geratu |
| 10. Iraazi / Idaazi | J. Lortu |

EUSKERAZ EGOGI

*Eskerrikasko

Askotan ikusten dogu berba horreik batera eskribiuta; goguan izan bihar dogu, baiña, bi berba dirala eta banaanduta idatzi bihar dirala.

Beraz, hemendik aurrera **eskerrik asko** idatziko dogu bi berbatan, berba bakarrian [eskerrikaskó] agoskau arren. Honen sinonimua **milla esker** edo **millesker** dogu, era bixetara idatzi leikiena Euskaltzaindixari segiuz.

Beste honeik be haren sinonimuak dira: **esker milla**, **esker(rik) anitz**, eta lagun arteko berbetan "**mertxi**" be bai.

Id. 2f, 3g, 4a, 5b, 6j, 7h, 8f, 9e, 10c.
-Billatu aditz honein sinonimuak

ERANTZUNAK



ITTEN BAT

(*) Itten: arrastua, pista

Kontu kontari

AUSTE ESTANA

Fan ziran behin oñatiar batzuk Bilboko erremintta-ferixara eta han gauza asko ikusitta herrira aillegau, eta, usadixuari jarraituaz sartu ziran Txarridunarenian mokadutxo bat egitteko. Botilla-ardaua etara orduko hasi ziran barriketan, Bilbon, ferixa nagusi horretan, ikusi eta erositakuaren gaiñian, eta mostadore onduan eguen lagun batek bota osten:

— Zer barri, ba, Bilbo aldian?

Erosi dozue ezer?

— Ba, bai, begira, artazi honeik erosi ditxuagu, alemanak, "Auste estana" markakuak.

— Eztok izango! Erakutsi!

Bestiak ikusi orduko:

Bueno, mutillak, honeik Zubillagan Altunarenian egitten ditxuai, baiña, zer esaten zabiltaiz! Alemanak eta iñunguak baiño hobiak ziralakuan, bertakuak eta iñunguen inbidixa bagerikuak izan! Hamaika holako ikusteko jaixuak gaittuk!



Ez kikilddu, ez lotsatu

UNTZUA ETA URDAIAZPIKUA

Gure aurrekuak ondo bereizten zittuain untzua eta urdaiazpikua. Gaur egunian ezta hala gertaketan, izan be erderaz bixai "jamón" esaten xate: "pongame 200gr. de jamón serrano" eta "esos jamones que cuelgan del techo son de Gujuelo". Hori dala-ta emuten dau euskeria erderazko moldera egogittu bihar dala betik eta eztago zertan, askoz hoba litzake dakogun lexiko aberastasanari eustia eta bereizkuntza hori gordetia.

Hortaz, gure euskeriak dakon ñabardura hori galdu ezta din holako esaldixak bota degigun billur barik:

Galiziarenian untzo ederrak agiri ziran txintxiliz, baitta Goñürenian be sasue batian.

Mostradore osteko untzo horreik nunguak ete dira, kanpokuak ala bertakuak?

Erezi untzo bat, oraintxe bertan probau bihar dot eta.

Zer gurako zeke? 200 gramo urdaiazpiko, fin ebagitta, mesedez.

Eta zer urdaiazpiko gura dozu, ba? Edonungua, baiña bihar dan moduan ondutakua!

Urdai-ontzo= txarrixaren lau hankak urdaixa eta gixarrarekin.

Untzo bat: txarrixaren hanka bakoitza

Lau untzu

Untzoko urdaixa: atzeko hanketako urdaixa



Urdaiiazpikua: el jamón.

Urdaixa: tocino

Ontzu (Bergara); Untzu, untzo, ontzo (Oñati)



EUSKERAZ

EGOGI

*Egunon /

*Arratsaldeon

Bi berba honeik be gero eta gehixagotan batuta ikusten dittugu eskribiuta, eta ohartu bihar gara bi berba dirala eta bereiz idatzi bihar dirala; hortaz, banaanduta idatziko dittugu **egun on** eta **arratsalde on**, nahiz eta agoskatterakuan bat egindda esan: [egúnón] eta [arrátsaldeón].

Hala ta be, kontuz ibilli **gabon** berbiarekin, esaten dan moduan idazten da-ta.